

Orgasmoa



ANA MENDIA
EMAGINA

Emakumeon masturbazioa irten da plazara. Ez pentsa, ordea, zainak lehertzeaz dituen zakiltzar trajea jantzita dabilenik. Haize eskean zebilen klitoriari merezi duen protagonismoa eman diote eta Olentzerori berari ere ailegatu zaio *Satisfyer* delakoaren uhin miragarria.

Deskuiduan baten batek ez du jakingo zeri buruz ari naizen. Ea ba, horrela, motzean: Thermomixaren bertio erotikoak mesanotxeak konkistatu ditu. Entzun arretaz: aparteko aurre elaboraziorik behar ez duen gailu sofistikatua heldu da gurera eta norberaren zaporeaz deus ez dakienak ere gozame-na inoiz ez bezala dasta dezan botoia sakatu besterik ez du. Bi minutu baino ez dira behar! Jostailu nabarmen garai-kidea. Helmugara zuzenean, bidaiarik gabe: Doraemonen ate magikoa.

Atsotitza aldatu beharko dugu: "Azkar eta ondo *Satisfyerak* orgasmo". Zenbate-tan entzun ote nien maisu eta maistrei esaera hura. Ariketa garbira pasa behar beti. Alferrikakoa zen protesta. "Eduki-az gaur aurkezpena garrantzitsua da".

Dena ez da, ordea, *satisfactory*. Ez da nostalgia kontua; gisatua su txikian eginda ikasten dena nekez ikasi ahal da Thermomixa erabilia

Tira, kontuak kontu, uda partetik hona milaka kuadrilla-afaritan algarka hitz egin dugu masturbazioaz. Eztabaida sortu da kafetegietan. Klitoria askoren hiztegiari sartu da. Dibertitu gara. Erregalua bildu eta sekula baino zentzudunago bota diogu elkarri: osasunez urratu.

Itzela da ile-maskarak efektua egin bitartean trastea martxan jarri eta zerrua ukitu ahal izatea, dudarik gabe. Dena ez da, ordea, *satisfactory*. Ez da nostalgia kontua; gisatua su txikian eginda ikasten dena nekez ikasi ahal da Thermomixa erabilia. *Joder*, Instagram

irakurrita badirudi estasia *on* zapaldu-ta hasi eta *off* zapalduta bukatzen dela. Eta noski, testuinguru horretan, bada garaipena barrukoari aitortu partez, kanpokoari oparitu dionik. Baita promestutako paradisuaren sarraila ezin topatuta bere buruaren gaitasuna zailantzan jarri duenik ere.

Kutxa barrukoari baino, hainbeste-ko presupuestorik gabe gorpuztasunaz goza dezagun abagunea eraikitzen dutenei zor diegu kuadrilla-afariko arrakasta. Dena den, aizue! Plazera, autoezagutza eta autoestimua ureztatuko baditu: *Ongietorri Satisfyer!* Kontrara, jostailuari bateria agortu ostean etxafuegoak pizteko komeriatan ibiliko garen ustea landatuko badu; hutsik gabeko orgasmo azkarra aukera partez hegemonia bilakatuko badu; akaso bai, akaso garbira pasa beharko dugu marketin kanpaina.

Artean ez nintzen jabetu, baina agian arrazoi zuten maisu-maistrek. Segun eta nola aurkeztu lana, horrela helarazten dugu edukia. Azkar eta ondo usoak hegan? ●

ARABAKO BERTSO KUADRILLA 2019 ARTEKO A

URTARRILAK 24 MARTXOAK 28

BAT-BATEKO 12 TALDE IDATZIZKO 16 TALDE

12 KANPORAKETA, 3 FINALURREKO ETA FINALA

280 PARTE HARTZAILA

arabako bertsozale elkarte

www.bertsozale.eus/araba

Babesle nagusiak

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Vital FUNDACIÓN-FUNDAZIOA

LABORAL KUTXA

udapa FACIL

artepan

ARGIA